



II. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Getxoko Udala

Getxon turismo-ibilgailuetan bidaiariak garraiatzeko hiriko zerbitzu publikoari buruzko Ordenantzaren behin betiko onarpena.

Udalaren osoko bilkurak 2022ko abenduaren 29an egindako bileran hasierako onarpena eman zion Getxon turismo-ibilgailuetan bidaiariak garraiatzeko hiriko zerbitzu publikoari buruzko Ordenantzari.

2023ko urtarrilaren 18ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean (12. zenbakian) argitaratu zen onespén horren iragarkia. Hala, jendaurreko informazioko izapide bat hastea erabaki zen, 30 egunez, erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko ondorioetarako.

Emandako epean ez denez inolako erreklamazio edo iradokizunik aurkeztu, behin betiko onetsitakotzat joko da Ordenantza hau. Jarraian ordenantza argitaratzen da. Hori dena Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 artikulua xedatutakoaren ondorioetarako.

Getxon, 2023ko martxoaren 2an.—Idazkari Nagusia, Ignacio J. Etxebarria Etxeita



GETXON TURISMO-IBILGAILUETAN BIDAIAIRIAK GARRAIATZEKO HIRIKO ZERBITZU PUBLIKOARI BURUZKO ORDENANTZA

ZIOEN AZALPENA

I. titulua. — *Xedapen orokorrak.*

1. artikulua. — *Ordenantzaren xedea.*
2. artikulua. — *Definizioak.*
3. artikulua. — *Printzipioak.*

II. titulua. — *Lizentziak.*

4. artikulua. — *Garraiorako lizentzia eta baimena.*
5. artikulua. — *Autotaxi-lizentziaren titular izateko betekizunak.*
6. artikulua. — *Lizentzia berriak ematea.*
7. artikulua. — *Lizentzia-kopurua.*
8. artikulua. — *Zerbitzuaren hasiera.*
9. artikulua. — *Esklusibotasuna.*
10. artikulua. — *Soldatapeko gidariak.*
11. artikulua. — *Lizentzien erregistroa.*
12. artikulua. — *Jardueraren hasiera.*
13. artikulua. — *Lizentziak eskualdatzea.*
14. artikulua. — *Aldi baterako etetea.*
15. artikulua. — *Eszedentzia.*
16. artikulua. — *Jardunari uztea.*
17. artikulua. — *Titularraren heriotza.*
18. artikulua. — *Azkentzea.*
19. artikulua. — *Baliogabetzea.*

III. titulua. — *Ibilgailuak.*

20. artikulua. — *Ibilgailua atxikitzea.*
21. artikulua. — *Ordezkapena.*
22. artikulua. — *Eskualdatzea.*
23. artikulua. — *Ordezko ibilgailuak.*
24. artikulua. — *Bereizgarriak.*
25. artikulua. — *Ibilgailuen egoera eta antzinasuna.*
26. artikulua. — *Ibilgailuen ezaugarri fisikoak.*
27. artikulua. — *Nahitaezko gutxieneko elementuak.*
28. artikulua. — *Pinturak, bereizgarriak eta itsasgarriak.*
29. artikulua. — *Ibilgailuak desinfektatzea.*
30. artikulua. — *Aurretiazko berrikuspena.*
31. artikulua. — *Ohiko eta ezohiko berrikuspenak.*
32. artikulua. — *Publizitatea. Alderdi orokorrak.*
33. artikulua. — *Barruko eta kanpoko publizitatea.*
34. artikulua. — *Aldaketak.*
35. artikulua. — *Legezko betekizunak.*

**IV. titulua. — Geldialdiak.**

- 36. artikulua. — *Geldialdiak.*
- 37. artikulua. — *Etenik gabeko prestazioa.*
- 38. artikulua. — *Geltokien antolamendua.*

V. titulua. — Kontrol-tresnak: taximetroa eta ordutegi-kontrola.

- 39. artikulua. — *Taximetroa eta modulua.*
- 40. artikulua. — *Funtzionamendua.*
- 41. artikulua. — *Taximetroaren ohiko ikuskapena.*
- 42. artikulua. — *Taximetroaren ezohiko ikuskapena.*
- 43. artikulua. — *Akatsak.*
- 44. artikulua. — *Anomaliak salatzea.*
- 45. artikulua. — *Ordutegi-kontrola: lanaldia eta lan-txanda.*

VI. titulua. — Zerbitzua emateko baldintzak.

- 46. artikulua. — *Bidaiarien garraioa.*
- 47. artikulua. — *Bagajea eta zerbitzu osagarriak.*
- 48. artikulua. — *Interes orokorreko zerbitzua.*
- 49. artikulua. — *Ibilgailua «libre» egoeran egotea.*
- 50. artikulua. — *Zerbitzuaren hasiera eta amaiera.*
- 51. artikulua. — *Zerbitzuaren ibilbidea.*
- 52. artikulua. — *Ibilgailuak udalerriko oinezkoentzako eremuetara sartzea.*
- 53. artikulua. — *Zerbitzu bat emateari uko egitea.*
- 54. artikulua. — *Istripuak eta matxurak.*
- 55. artikulua. — *Erregaia kargatzea edo elektrizitatea kargatzea.*
- 56. artikulua. — *Galerak eta aurkikuntzak.*
- 57. artikulua. — *Moneta-trukea.*
- 58. artikulua. — *Ordainketa eta itxaronaldia.*
- 59. artikulua. — *Baterako prestazioko lurralde-eremuak eta araubide bereziko eremuak.*
- 60. artikulua. — *Debekuak.*
- 61. artikulua. — *Ibilgailua aldi baterako erabilezin bihurtzea.*
- 62. artikulua. — *Zerbitzua emateko behar diren agiriak.*
- 63. artikulua. — *Erabiltzaileen eskubideak.*
- 64. artikulua. — *Erabiltzaileen betebeharrak.*
- 65. artikulua. — *Gidariaren betebeharrak.*

VII. titulua. — Tarifen araubidea.

- 66. artikulua. — *Tarifen nahitaezkotasuna.*
- 67. artikulua. — *Tarifak berrikustea.*

VIII. titulua. — Zerbitzuen elkarrekintza.

- 68. artikulua. — *Baterako prestazioko lurralde-eremuak eta araubide bereziko eremuak.*

IX. titulua. — Udalaren gidari-baimena.

- 69. artikulua. — *Gidariaren udal-baimena izatea.*
- 70. artikulua. — *Lortzeko baldintzak.*
- 71. artikulua. — *Gidariaren udal-baimena iraungitzea.*

**X. titulua. — *Ikuskapen eta zehapen araubidea.***

- 72. artikulua. — *Ikuskapen-eginkizuna.*
- 73. artikulua. — *Arau-haustearen kontzeptua.*
- 74. artikulua. — *Araubide juridikoa.*
- 75. artikulua. — *Sailkapena.*
- 76. artikulua. — *Arau-hauste oso larriak.*
- 77. artikulua. — *Arau-hauste larriak.*
- 78. artikulua. — *Arau-hauste arinak.*
- 79. artikulua. — *Zehapenak.*
- 80. artikulua. — *Lizentzia baliogabetzea.*
- 81. artikulua. — *Arau-hausteen eta zehapenen preskripzioa.*
- 82. artikulua. — *Eskumena.*
- 83. artikulua. — *Prozedura.*
- 84. artikulua. — *Ibilgailua gelditzea.*
- 85. artikulua. — *Ordainketa.*

Xedapen Gehigarriak.

- Lehenengoa. — *Berrikuntza teknologikoak.*
- Bigarrena. — *Baliabide telematikoak.*
- Xedapen Iragankor Bakarra. — *Ibilgailuen kolorea.*
- Xedapen Indargabetzaile Bakarra. — *Indargabetzea.*

Azken Xedapenak.

- Lehenengoa. — *Zehapenak eguneratzea.*
- Bigarrena. — *Araudia.*
- Hirugarrena. — *Indarrean jartzea.*

**GETXON TURISMO-IBILGAILUETAN BIDAIAIRIAK GARRAIATZEKO
HIRIKO ZERBITZU PUBLIKOARI BURUZKO ORDENANTZA****ZIOEN AZALPENA**

Getxoko bidaiariak alokatzeko ibilgailuen eskatu ahalako zerbitzu publikoaren Erregelamendua, gaur egun indarrean dagoena, Udaltzat onartu zuen 1986ko irailaren 24an egindako bilkuran.

Ondoren, Osoko Bilkurak 2001eko urtarrilaren 26an egindako bileraren 7. Erabakiaren bitartez, Getxoko autotaxi-ibilgailuen kolorea gris zilar metalizatukoa izango zela erabaki zen, eta, horren ondorioz, aipatutako Erregelamendua aldatu zen, zentzu horretan.

Ekainaren 29ko 2/2000 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko bidaiariak herri barruan eta herriz kanpo kotxez garraiatzeko zerbitzu publikoa arautzen duenak, erantzuna eman zion Euskadiko taxien sektoreari araudi propioa ematearen komenigarritasunari, eta lege multzo bakar batean bateratu zuen aplikatzen ari zen araudi sakabanatua. Horrela, Euskal Autonomia Erkidegoan sortutako behar eta eskakizunetara egokitutako erregulazio propioa eman zitzaion sektoreari.

Lege horrek ahalmena eman zion Eusko Jaurlaritzari lege hori garatzeko eta aplikatzeko behar ziren erregelamenduzko xedapenak eman zitzaizkien, eta hori jasota geratu zen urriaren 15eko 243/2002 Dekretuan, zeinaren bidez onartu baitzen Bidaiariak Herri Barruan eta Herriz Kanpo kotxez garraiatzeko zerbitzu publikoa arautzen duen Legearen Erregelamendua.

Bestalde, indarrean dagoen erregelamendua onartu zenetik igaro diren urteetan, kezka eta sentsibilitatea areagotu egin dira irisgarritasun unibertsalaren eta hirietako ingurumenaren babesaren eta jasangarritasunaren arloetan. Gai horiek eragin zuzena dute garraioaren arloan.

Eremu administratibo hertsian, araudi berri bat sartu da indarrean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legea onartuta, eta berrikuntza garrantzitsuak sartu dira administrazioaren eta administratutako pertsonen arteko harremanetan eta espedienteen izapidetzean.

Denborak aurrera egin ahala, bai eta onartu ondorengo lege-aldaketek ere, komenigarri egin dute indarrean dagoen Erregelamendua indargabetzea, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 4.1.a) eta 86.2 artikuluetan jasotako eskumenak erabiliz, egungo arau-esparrura egokitzeko.

Beraz, aurrekoan oinarrituta, indarrean dagoen Erregelamendua osorik berrikusten da, egungo beharrek hobeto egokitzen den ordenantza berri bat onartuz.

I. TITULUA**XEDAPEN OROKORRAK****1. artikulua. — Ordenantzaren xedea**

Ordenantza honen xedea da taximetroa duten automobiletan bidaiariak garraiatzeko zerbitzuak arautzea —aurrerantzean, autotaxia—, baldin eta kontagailu-taximetroa badute, udal-lizentzia badute eta Getxoko hiri-tarifak aplikatzen bazaizkie.

Ordenantza hau automobiletan egiten den bidaiarien herri barruko eta herriz kanpoko garraio publikoaren arloan indarrean dagoen araudiaren mende egongo da, bai eta aplikagarria den gainerako garraio-araudiaren, trafikoari, zirkulazioari eta bide-segurtasunari buruzko legeriaren eta horretarako ematen diren gainerako xedapenen mende ere.

2. artikulua. — Definizioak

Ordenantza honen ondorioetarako, honako definizio hauek hartzen dira kontuan:

- a) Autotaxi zerbitzuak: bederatzi plaza arteko edukiera duten automobiletan egiten den bidaiarien garraioa, gidatzen duen pertsona barne, taximetroarekin. Tarifa izeneko prezio baten bidez ordaintzen da.



- b) Autotaxiko hiri-zerbitzuak: osorik Getxoko udalerritik igarotzen diren zerbitzuak.
- c) Hiriarteko taxi-zerbitzuak: b) idatz-zatiko definizioan sartzen ez direnak.

3. artikulua. — *Printzipioak.*

Autotaxi zerbitzuaren jardura honako printzipio hauei lotuta dago:

- a) Administrazioaren esku-hartzea, zerbitzua ematean kalitate-maila ezin hobea lortzeko interes publikoaren beharrezko bermean oinarrituta.
- b) Unibertsaltasuna, irisgarritasuna, jarraitutasuna eta erabiltzaileen eskubideen errespetua.
- c) Sektoreko elkarrekin lankidetzan, berrikuntza teknologiko egokienak arian-arian ezar daitezkeen sustatzea, taxi-zerbitzuen prestazio- eta segurtasun-baldintzak hobetzeko, bai kontratazio- eta ordainketa-bideei dagokienez, bai ibilgailuak kokatzeko sistemei dagokienez, besteak beste.
- d) Ingurumenaren iraunkortasuna, ingurumena errespetatzen duten, birziklatzea ahalbidetzen duten, ordeko erregaia erabiltzen dituzten, hibridoak edo atmosferara CO₂ gutxiago isurtzen duten ibilgailuen erabilera sustatuz.

II. TITULUA**LIZENTZIAK****4. artikulua. — *Garraiorako lizentzia eta baimena***

1. Lizentzia titularrari ordenantza honetan aipatzen diren hiri-zerbitzuak emateko gaitasuna ematen dion titulu juridikoa da. Getxoko Udalari dagokio baimena ematea.

2. Bizkaiko Foru Aldundiak emandako garraio-baimena (garraio-txartela) duten udal-lizentzien titularrek bakarrik eman ahal izango dituzte hiriarteko zerbitzuak.

5. artikulua. — *Autotaxi-lizentziaren titular izateko betekizunak*

1. Honako baldintza hauek betetzen dituztela egiaztatzen duten pertsona fisikoak izan daitezke ordenantza honetan aipatzen diren lizentzien titularrak:

- a) Arau honek eta aplikatu beharreko gainerako arauak ezartzen dizkieten bete-behar fiskal, laboral, sozial eta administratibo guztiak betetzea.
- b) Garraioa egiteko erabiltzen diren ibilgailuaren eskakizun teknikoak, indarrean dagoen araudiak eskatutakoak, betetzen direla egiaztatzea.
- c) Egiten duten garraio-zerbitzua dela-eta erabiltzaileei eragin diezazkieketen kalte-galeren erantzukizun zibila estalita izatea, erregelamendu bidez ezartzen den moduan. Era berean, nahitaezkoa izango da aseguru-poliza bat hitzartzea, bera-riazko legediak behartzen dituen gainerako arrisku guztiak estaliko dituen.

2. Udalak ofizioz eskatu ahal izango ditu beste administrazio publiko batzuen esku dauden datuak, baldin eta ordenantza honetan araututako baldintzak egiaztatzeko baino balio ez badute, eta hori guztia sektore publikoaren araubide juridikoaren arloan indarrean dagoen araudiaren aurreikuspenen arabera.

6. artikulua. — *Lizentzia berriak ematea*

1. Inguruabarrek hala eskatzen badute, lizentzia berriak sortu ahal izango dira, jendeari eman beharreko zerbitzuaren premiari edo komenigarritasunari erantzuteko, eta faktore hauek baloratuko dira, besteak beste:

- a) Getxoko taxi-zerbitzuen eskaintza eta eskaria.
- b) Zerbitzuaren kalitatea eta hedadura lizentzia berriak eman aurretik.
- c) Herriguneen mota, hedadura eta hazkundea (bizitegiak, turismoa, industria, etab.).



- d) Zerbitzu hobe eta zabalago baten benetako beharrak, kontuan hartuta egiten diren merkataritza-, industria-, turismo- edo bestelako jarduerak, taxi-zerbitzuen eskari espezifikoak sor dezaketenak.
- e) Eman beharreko lizentzia berriek garraioan eta zirkulazioan duten eragina.
- f) Dagokion lurralde-eremuko zerbitzu publikoko azpiegiturak, honako hauekin lotutakoak: osasuna, irakaskuntza, gizarte-zerbitzuak, aisialdiko espazioak eta jolas- eta kirol-jarduerak, garraioak edo taxi-zerbitzuen eskarian eragina duten beste faktore batzuk.
- g) Garraio publikoko zerbitzuen bidez, herritarren mugikortasun-premien estaldura-maila.

2. Autotaxiko hiri-zerbitzua emateko sortu berri diren lizentziak, halakorik izanez gero, toki-araubideko araudian ezarritako prozeduren arabera emango dira, eta lehia askearen eta publizitatearen baldintzak errespetatuko dira beti.

3. Nolanahi ere, deialdian, balioespen-irizpide gisa, lizentziei atxikitzen zaizkien ibilgailuen ezaugarriak jaso beharko dira, batez ere, mugikortasun mugatuko pertsonentzat ibilgailua egokitzeari dagokionez, gutxienez indarrean dagoen irisgarritasun-araudiak eskatzen dituen aurreikuspenak lortzeko edo motorizazioan, diseinuan, materialetan, pisan eta antzekoetan teknologiak sartzeko, eraginkortasun energetiko handiena ahalbidetzeko; erregai berriztagarriak erabiltzea, zarata eta gas eta partikula kutsagarrien emisioak minimizatzea, erabilitako materialak ahalik eta gehien birziklatzea eta konposatu organokloratuak saihestea, dagokion ziurtagiria aurkeztu ondoren.

4. Deialdi horretan, halaber, honako alderdi hauek, besteak beste, ezagutzen direla egiaztatzeko proba bat sartu ahal izango da: Getxoko udalerria eta haren inguruak, interes turistikoko lekuak, zentro ofizialak, establezimendu sanitarioak, hotelak eta ibilbideak; ordenantza hau, sektoreari buruzko araudi autonomikoa eta aplikatu beharreko tarifa-araubidea ezagutzea; herritarrari eman beharreko arreta, bereziki dibertsitate funtzionala duten pertsonen; edo Administrazioak eska dezakeen beste edozein ezagutza.

7. artikulua. — *Lizentzia-kopurua*

Pertsona bera ezin izango da, inola ere, lizentzia baten baino gehiagoren titular izan.

8. artikulua. — *Zerbitzuaren hasiera*

- 1. Ordenantza honetan araututako zerbitzuak Getxoko udalerrian hasi beharko dira.
- 2. Salbuespen izango dira, hala badagokio, zerbitzu bateratuak ematen diren lurralde-eremuetan eta araubide bereziko eremuetan egindako zerbitzuak, hala nola Loiuko aireportuan, eta aldez aurretik kontratatuta daudenak edo lizentziarik ez duten eremuak bete behar dituztenak, bai eta zerbitzu bereziak ere, erregelamendu bidez ezarritakoaren arabera.
- 3. Itsas geltokietako taxi-zerbitzu publikoa Getxoko udalerriari atxikita dago, ez baita araubide bereziko eremutat eta baterako zerbitzugunetzat hartzen.
- 4. Getxoko udalerrian (Getxo Taxi Tour) taxiz egiten diren bisita gidatuak ere ordenantza honen menpe daudela ulertuko da.

9. artikulua. — *Esklusibotasuna*

- 1. Lizentziaren titularrak berak ustiatu beharko du lizentzia, dedikazio osoko eta eskusiboko erregimenean, eta ordaindutako beste edozein jarduerarekin bateraezina izango da.
- 2. Alderdi hori agiri bidez egiaztatuko da, Getxoko Udalak zehazten duen moduan.
- 3. Ordenantza honetan adierazitako kasuetan, eta salbuespen gisa, Udalaren ustez behar bezala egiaztatutako arrazoiak daudenean, lizentzia soldatapeko pertsona baten kontratazioaren bidez ustiatu ahal izango da, eta lizentzia bakoitzak ezingo du gidari bat baino gehiago atxikita eduki.

**10. artikulua.— Soldatapeko gidariak**

1. Soldatapeko gidariak egiaztatu beharko dute, jarduera hasi aurretik, lizentziaren titularrak kontratatu duela eta lanaldi osoari dagokion Gizarte Segurantzako langileen erregimenean sartu dela.

2. Soldatapeko gidariak Getxoko Udalak lizentzien titularrentzat eskatzen dituen lanbide-gaitasuneko betekizun berberak izango dituzte, eta ezin izango dira egon Ordenantza honetan eta bidaiarien herri barruko eta hiriarteko automobiletako garraio publikoaren arloan indarrean dagoen araudian aipatzen diren ezgaitasun-arrazoietako edo debekuetako batean ere.

3. Soldatapeko gidariak, autotaxi-lizentzien titularrek bezala, Ordenantza honetan zerbitzua emateko jasotako eskakizunak betetzeari buruz erantzun beharko dute.

4. Soldatapekoak agiri bidez egiaztatuko du titularrak egunean dituela Laneko eta Gizarte Segurantzako legeriak besteren konturako langileentzat ezartzen dituen bete-beharrak.

5. Soldatapeko pertsona horren lan-baldintzei dagokienez, eremu geografiko hurbileneko sektoreko hitzarmenaren testua hartuko da erreferentziazat, eta, halakorik ez badago, autotaxiaren sektorerako indarrean dagoen Hitzarmen Kolektibo Nazionala.

6. Ezein lizentziek ezin izango du soldatapeko gidari bat baino gehiago atxikita edukitzea, udalaren baimenik izan ezean, legez edo erregelamenduz aurreikusitako kasuetan.

11. artikulua.— Lizentzien erregistroa

1. Udalak emandako autotaxi lizentzien erregistro bat sortu eta mantenduko du. Bertan, lizentziaren titulartasunari, ibilgailuei, egindako arau-hausteei eta ezarritako zehapenei buruzko gorabeherak idatziko ditu. Baita lizentziari buruzko beste edozein gorabehera ere.

2. Autotaxi-lizentzien titularrek nahitaez jakinarazi beharko dituzte bizileku-aldaketak eta erregistroan agertu beharreko gainerako datu eta inguruabarrak, gehienez ere hilabeteko epean.

3. Erregistroetako datuen tratamenduak eta lagapenak bat etorri behar dute datu pertsonalak babesteari buruz indarrean dagoen araudiarekin.

12. artikulua.— Jardueraren hasiera

1. Autotaxi lizentzia eskuratzen duten pertsonak hirurogei egun naturaleko epean hasi beharko dute zerbitzua ematen, baimena jakinarazten den egunetik zenbatzen hasita.

2. Ezinbesteko arrazoiak direla eta, epe horretan ezin badute jarduera hasi, luzapen bat eman ahal izango da, interesdunak behar bezala justifikatutako eskaera egin ondoren, eta epe hori amaitu baino lehen egin beharko da.

3. Behin zerbitzua ematen hasita, lizentzien titularrek ezin izango diote zerbitzua emateari utzi arrazoi justifikaturik gabe. Nolanahi ere, lizentzia aldi baterako etenda edo eszedentzian dagoen denboran edo Ordenantza honetan aurreikusitako atsedenaldeen ondorioz zerbitzua eten izana justifikatutzat joko da.

13. artikulua.— Lizentziak eskualdatzea

1. Lizentziak ezin izango dira eskualdatu, honako kasu hauetan izan ezik:

- a) Titularraren heriotza, aurrekoaren jaraunsleen alde.
- b) Erretiroa hartuz gero.
- c) Ezkontide alargunak edo a) idatz-zatian aipatutako oinordekoek ezin badute lizentzia jarduera bakar eta eksklusibo gisa ustiatu.
- d) Titularrak, gaixotasun, istripu edo ezinbesteko arrazoiengatik, lanbidean jardun ezin duenean.



- e) Lizentziaren titularrak hamar urtetik gorako antzintasuna duenean. Eskualdatu ahal izango du, toki-erakundearen alde aurreko baimenarekin, eta ezin izango du beste lizentziarik lortu, udalerrri berean, hamar urteko epean, Ordenantza honetan ezarritako edozein modutan.
2. Aurreko puntuko a), b), c) eta d) kasuetan jasotako lizentzien eskualdaketa gehienez 2 (bi) urteko epean eskatu beharko da, eskualdaketa justifikatzen duen kasua gertatzen denetik zenbatzen hasita. Getxoko Udalak epe hori luzatu ahal izango du, horretarako emandako ebazpen baten bidez, luzapena eskatzen duenak behar bezala justifikatu beharko dituen arrazoiengatik.
3. Eskuratzailerak Ordenantza honetan aurreikusitako baldintzak betetzen ditue-nean baino ez da baimenduko lizentzien eskualdaketa.
4. Edonola ere, Ordenantza honetan tipifikatutako arau-hausteren batengatik ad-ministrazio-bidean ebazpen irmoz ezarritako diruzko zehapenak ordaintzea ezinbesteko baldintza izango da arau-hauste horiek egin dituzten titularren lizentziak eskualdatzeko baimena emateko.
5. Ezin izango dira lizentziak eskualdatu organo eskudunak jakiten badu organo judizialak edo administratiboak enbargatu dituela lizentzia horiek.
6. Eskualdatutako lizentziari dagokion ibilgailua lehen aipatutakoa bera izan daite-ke, baldin eta lizentzia eskuratzen duen pertsonak, era berean, ibilgailu horren gaineko xedapena eskuratu badu Ordenantza honetan aurreikusitako modalitatearen baten ara-bera, edo beste ibilgailu bat izan daiteke, titular berriak ekarritakoa, betiere ibilgailuak ordezteko baldintzak betetzen badira.
7. 3 (hiru) hilabeteko epea igaro eta ebazpen adierazia jakinarazi ez bada, lizentzia transferitzeko eskaera egin duenak baietsizat jo ahal izango du administrazio-isiltasu-nez, Udalak Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legean aurrei-kusitako moduan eman behar duen ebazpenaren kalterik gabe.
8. Transferentzia-baimena iraungi egingo da eta ondoriorik gabe geratuko da, ema-ten den ebazpenaren egunetik 6 (sei) hilabeteko epea igaro ondoren.

14. artikulua. — Aldi baterako etetea

1. Istripu, matxura, gaixotasun edo, oro har, zerbitzua ematen jarraitzea eragoz-ten edo aldi baterako ezinezko egiten duen edozein zirkunstantziaren kasuan, zerbitzua emateko eskumena duen organoak lizentziaren eta baimenaren eraginkortasuna etengo du adierazitako inguruabarrek irauten duten bitartean.
2. Gidariaren gaixotasunak, titularra edo soldatapekoa izan, edo hark 3 (HIRU) hila-betik gorako epean zerbitzua ematen jarraitzeko ezintasunak eragin ahal izango du ba-liogabetzea, salbu eta lizentziaren eta baimenaren titularrak, aplikatu beharreko araudia-ren arabera, Udalaren alde aurreko baimenarekin, gidari baten zerbitzuak kontratatzen baditu, turismo-automobiletako bidaiarien hiri barruko eta hiriarteko garraio publikoaren arloan indarrean dagoen araudian aurreikusitako kasuetan, zerbitzuaren jarraitutasuna ziurtatzeko.
3. Aldi baterako etenaldia ez da zenbatuko Ordenantza honen 13.1.e) artikulua-ren ondorioetarako.

15. artikulua. — Eszedentzia

1. Autotaxi-lizentziaren titularrak zerbitzuko eszedentzia hartu ahal izango du hona-ko egoera hauengatik:
- a) Kargu publikoa betetzea, egoera horrek irauten duen bitartean.
- b) Ordezkaritza sindikala edo profesionala izatea, egoera horrek irauten duen bitar-tean.
- c) Seme-alabak zaintzeagatik, gehienez ere hiru urteko iraupenarekin.
- d) Odol-ahaidetasunezko edo ezkontza-ahaidetasunezko bigarren mailarainoko senitarteko bat zaintzeagatik, baldin eta, adina, istripua, gaixotasuna edo des-



gaitasuna direla-eta, ezin bada bere kabuz moldatu, eta ordaindutako jarduerarik egiten ez badu, gehienez ere bi urtez.

2. Eszedentzia hori Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztutako eskabidearen bidez eskatu beharko da. Eskabidean honako hauek jaso beharko dira: eszedentziaren hasiera-data, iraupena eta arrazoiak.

3. Aurreko kasuetan, eszedentzia-aldian, lizentzia zerbitzutik kanpo geratuko da, eta, beraz, lizentzia eman ahal izateko, lizentziari atxikitako ibilgailuari aldi baterako baja eman beharko zaio, ibilgailua zerbitzu publikorako erabiltzen dela identifikatzen duten elementu guztiak ezabatuz, eta hori dagokion udal-ikuskapenean egiaztatuko da.

4. Kasu horietan, eszedentzia-epea Ordenantza honetako 13.1.e) artikulua on-dorioetarako zenbatuko da. Aldi horretan, lizentziaren titularrak ez du taxien urteko berri-kuspen arrunta egin beharrik izango. Aldi horretan, soldatapeko gidari baten zerbitzuak kontratatu ahal izango dira. a) eta b) idatz-zatietan jasotako kasuetan, soldatapeko gidari baten zerbitzuak soilik kontratatu ahal izango dira betetzen diren karguak ordainduak ez direnean.

5. Eszedentzia emateko epea igarotakoan, lizentziaren titularra zerbitzura itzuli beharko da, Ordenantza honetan araututako laneratze-prozesuaren arabera, eta eman-dako epea baino lehen egin ahal izango du. Kasu batean zein bestean, aldezturik Administrazioari jakinarazi beharko dio.

6. Egoera hori formalizatzeko, Udalak zehaztutako dokumentazioa aurkeztuko du.

16. artikulua. — *Jardunari uztea*

1. Autotaxi-lizentziak jardunari uzteko egoerara igaroko dira honako egoera hauetan:

- a) Titularrak erretiroa hartzen badu.
- b) Titularra lanbidean jarduteko ezintasun iraunkorra duenean.

2. Jardunari uzteak berekin dakar lizentzia eskualdatzeko betebeharra, gehienez ere lau urteko epean, lizentzia uzten den egunetik zenbatzen hasita. Epe hori amaitutakoan, Udalak lizitazio publikora atera ahal izango du lizentzia, nahi duen aldizkakotasunarekin. Lizitazio hori Tokiko Gobernu Batzarrek (edo hark eskuordetzen duen organoak) onetsiko dituen oinarrien bidez arautuko da.

3. Kargua uzteak aukera ematen du lizentzia soldatapekoaren bidez ustiatzeko, salbu eta lizentziaren titularrak erretiroa hartzen badu.

4. Epe horretan, lizentziaren titularrak jarduera bertan behera utziko du, eta, beraz, lizentzia eman ahal izateko, lizentziari atxikitako ibilgailuari aldi baterako baja eman beharko zaio, ibilgailua identifikatzen duten elementu guztiak ezabatuz, zerbitzu publiko-
ra dedikatzen den aldetik, eta hori dagokion udal-ikuskapenean egiaztatuko da.

Aldi horretan, ez du taxien urteko berrikuspen arrunta egin beharrik izango.

5. Egoera hori formalizatzeko, Udalak zehazten duen dokumentazioa aurkeztuko da.

17. artikulua. — *Titularraren heriotza*

1. Autotaxi-lizentziaren titularra hiltzen bada, lizentzia zerbitzuz kanpokotzat joko da ondorio administratiboetarako.

2. Jaraunspena deklaritzen denetik gehienez ere sei hilabeteko epean, jaraunseak horren berri eman beharko dio Udalari, eta dagozkion egiaztapenak aurkeztu beharko ditu. Baldintzak betetzen ez badira, Udalak lizentzia baliogabetuko du.

3. Aitortutako jaraunserik ez badago, lizentzia Udalari itzuliko zaio.

4. Heriotzagatiko eskualdaketa onoriozko autotaxi-lizentziaren titular berriak lau urte izango ditu edo 25 urte bete arte, lizentzia bere kabuz ustiatzeko edo eskualdaketa gauzatzeko. Denbora horretan, soldatapeko pertsona bat kontratatzeko baimena emango da.

**18. artikulua. — Azkentzea**

Lizentziak eta baimenak arrazoi hauengatik azkenduko dira:

- a) Titularrak uko egitea.
- b) Baliogabetzea.
- c) Titularraren heriotza, eskualdagarritasun-kasuetan izan ezik.
- d) Lizentzia baliogabetzea.

19. artikulua. — Baliogabetzea

1. Udalak lizentzia ezeztatu ahal izango du egoera hauetakoren bat gertatzen bada:
 - a) Lizentziaren titular izateko Ordenantzan aurreikusitako baldintzak ez betetzea (5. artikulua).
 - b) Lizentzia aldian-aldian ikus-onetsi behar bada, lizentzia eskatu gabe urtebete igarotzeagatik, eskaera egiteko epea hasten den unetik zenbatzen hasita, salbu eta eskabiderik eza lizentziaren titularrari egotzi ezin zaionean.
 - c) Arau-hauste oso larriak behin eta berriz egiteagatik edo ezarritako zehapena urratzeagatik. Hori dela eta, behin baino gehiagotan egin dela ulertuko da, baldin eta, arau-haustea egin aurreko hamabi hilabeteetan, oso larritzat tipifikatutako arau-hausteagatik behin betiko ebazpenaren bidez zehapena ezarri bazaio haren arduradunari.
 - d) Autotaxiaren udal-lizentziari atxikitako ibilgailua «inter vivos» eskualdatu bada, lizentziaren titularrak, aldi berean, ibilgailu berri bat atxiki gabe, Administrazioak berrikusi eta baimendu ondoren.
2. Errebokatutako lizentziaren titularrak ezin izango du beste eskabiderik aurkeztu, errebokazioaren egunetik hamar urte igaro ez badira behintzat.

III. TITULUA**IBILGAILUAK****20. artikulua. — Ibilgailua atxikitzea**

Autotaxi-lizentziak ibilgailu jakin bat atxikita eduki beharko du, bai jabetzan, bai finantza-errentamenduko erregimenean edo erregimen arruntean.

21. artikulua. — Ordezkapena

1. Lizentziaren titularrak hari atxikitako ibilgailua ordeztu ahal izango du.
2. Horretarako, interesdunak idatziz eskatuko du nahitaezko udal-baimena. Baimen hori emango da zerbitzurako segurtasun- eta kontserbazio-baldintza teknikoak egokiak direla egiaztatu ondoren, bai eta
3. Eskaera hori Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legean ezarritako prozedura-bideen bidez izapidetuko da.

22. artikulua. — Eskualdatzea

Autotaxiaren udal-lizentziari atxikitako ibilgailua «inter vivos» eskualdatzeak ibilgailua ezeztatzea ekarriko du, salbu eta, aldi berean, lizentziaren titularrak beste ibilgailu bat atxikitzen badio horri, Administrazioak berrikusi eta baimendu ondoren.

23. artikulua. — Ordezko ibilgailuak

1. Ibilgailuaren istripua edo matxura gertatuz gero, titularrak zerbitzua ematen jarraitu ahal izango du, aldez aurretik baimenduta, konponketak irauten duen bitartean, ordezko ibilgailu baten bidez.
2. Ordezko ibilgailua udal-lizentzia espezifiko duena da, eta taximetroaren funtzionamendurako baldintzak betetzen dituena. Ibilgailu mota honek Ordenantza honetan autotaxi-ibilgailuentzat jasotako eskakizun guztiak bete beharko ditu.



3. Erabilera kontrolatze aldera, ordezkapen-ibilgailu mota hori duten elkarte edo erakundeek ordezkapen-ibilgailuen erabilerari buruzko informazioa bidali beharko dute Getxoko Udalera, ezartzen den aldizkakotasunarekin (erabili duten lizentziak, aldia, arrazoia, etab.).

24. artikulua. — Bereizgarriak

Zerbitzu publikoa adierazten duten plakei, matrikulari eta abarri dagokienez, Trafikoa-ri, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legean, Ibilgailuen Erregelamenduan eta aplikatu beharreko gainerako araudian xedatutakoa beteko da.

25. artikulua. — Ibilgailuen egoera eta antzinasuna

1. Zerbitzu publiko egokia emateko, Ordenantza honetan aipatzen diren ibilgailuek kontserbazio-, segurtasun-, funtzionamendu- eta garbitasun-egoera onean egon beharko dute, bai kanpoan, bai barruan.

2. Ezin izango da lizentziari atxiki lehen matrikulaziotik bi urte baino gehiagoko antzinasuna duen ibilgailurik, matrikulazioa zein herrialdetan egin den kontuan hartu gabe.

3. Lizentziei atxikitako ibilgailuek indarrean dagoen ingurumen-araudia beteko dute.

26. artikulua. — Ibilgailuen ezaugarri fisikoak

1. Ordenantza honetan aipatzen diren ibilgailu automobilek ezaugarri hauek izan beharko dituzte:

- a) Gehienez bost plaza izango dituzte, gidariarena barne. Salbuespen gisa, baime-na eman ahal izango da ibilgailuak hura baino edukiera txikiagoa edo handiagoa izan dezan (gehienez bederatzi plaza), egin beharreko zerbitzuaren izaera eta inguruabarrak kontuan hartuta, eta, batez ere, mugikortasun urriko pertsonentza-ko irisgarritasuna kontuan hartuta.
- b) Ibilgailuaren eta eserlekuen gutxieneko neurriak eta ezaugarriak erabiltzaileei zerbitzuaren berezko segurtasuna eta erosotasuna emateko beharrezkoak izan-go dira.
- c) Karrozeria itxikoak izango dira, sarbide errazeko ateekin, gutxienez lau, eta 330 litrotik gorako maletategikoak.
- d) Aurreko eta atzeko lunetetako eta leihatiletako kristalak astunezinak izango dira.
- e) Ibilgailuen tapizazioa kolore eta diseinu diskretukoa izango da egoera onean egongo da, hondamenik, adabakirik edo barrualdean garbitasun eta kontserba-zio txarraren itxura ematen duen bestelako kalterik gabe, eta kolore berekoa izan dadin saiatuko da, eta kalitate eta marrazketa aldetik desegokiak direnak ez dira baimenduko.
- f) Zorua gomazko estalkiekin edo erraz garbitzeko moduko beste material batzue-kin babestu ahal izango da, ondo atxikita eta hausturarik gabe. Debekatuta dago alfonbrak eta felpudoak erabiltzea.
- g) Plaza guztietan buru-euskarria izango dute.
- h) Berokuntzako eta aire girotuko gailuak izango dituzte.
- i) Gris ilunez margotuta joango dira, eta modulu adierazleko zifrak argi eta garbi ikus daitezke.
- j) Lizentzia-zenbakia ageriko leku batean jarriko da.
- k) Egunez eta gauez, hutsik egotearen egoera argi berdea piztuz adieraziko da.
- l) Su-itzalgaillua izan beharko dute.
- m) Segurtasun-manparak instalatuz gero, horiek homologatu egin beharko dira eta indarrean dagoen araudian ezarritakora egokitu.



2. Taxiak gurpil-aulkietarako egokituztat joko dira honako kasu hauetan:
 - Gurpil-aulki elektriko bat garraiatzeko espazio bat izatea eta espazio horren gutxieneko neurriak unean-unean indarrean dagoen araudian ezarritakora egokitzea.
 - Gurpil-aulkietara sartzeko ateak gurpil-aulki elektrikoak lasai igaro ahal izateko neurriak izango ditu, indarreko araudi aplikagarrian jasotakoaren arabera.
 - Gurpil-aulkiak ontziratzea eta lehorreratzea aurreikusten den atean arrapalak edo plataforma jasotzaileak izatea. Arrapala eta plataforma horiek indarrean dagoen araudian ezarritako baldintzak bete beharko dituzte.
 - Gurpil-aulkientzako ainguraketak eta erabiltzaileentzako segurtasun-uhala egotea.
 - Gelaren barrualdeak eusteko barrak izango ditu, ingurunearekin kontrastatutako kolorekoak, eta horiek, funtzionaltasunari eta neurriei dagokienez, indarrean dagoen araudi aplikagarrian ezarritako parametroetara egokituko dira.
 - Gidariak izan behar dira ainguraketak eta segurtasun-uhalak jartzeaz eta instalatutako ekipoak manipulatzeaz arduratzen diren pertsonak, gurpil-aulkian dauden erabiltzaileei ibilgailuetarako sarbidea eta irteera errazteko.
3. Taxi egokituek lehentasuna emango diete mugikortasun murriztua duten pertsonen, baina inola ere ez dute izango erabilera eskusibo hori.
4. Los cuadros de tarifas, así como las demás informaciones complementarias, deberán estar disponibles para ser mostrados a los usuarios y usuarias, siempre que estos o estas los soliciten y podrán ser mostrados en papel o mediante formato digital.

27. artikulua.— Nahitaezko gutxieneko elementuak

1. Los vehículos afectos a las licencias de autotaxi deberán ir provistos de los siguientes elementos mínimos obligatorios:
 - a) Tarifak eta ordutegia kontrolatzeko sistemak integratzen dituen taximetroa.
 - b) Tarifa anizkoitza adierazten duen argi-modulua.
 - c) Faktura sinplifikatua egiteko inprimagailua.
 - d) Saltokiko terminala (ST), erabiltzaileek banku-txartelarekin ordaindu ahal izateko.
2. Taximetroak eta argi-moduluak aukera emango dute ibilbide guztietan indarrean dauden tarifak aplikatzeko eta ikusteko.

Taximetroa karrozeriaren barrualdearen aurrealdean kokatuko da, erakutsi behar diren balioen irakurketa uneoro argia, agerikoa eta erabiltzaileentzat eroso izan dadin.
3. Faktura sinplifikatuaren edukia une bakoitzean indarrean dagoen araudiak ezarritakoa izango da.
4. Inprimagailua matxuratzen bada, aldi baterako eta lan-txanda amaitu arte, ordainagiri bat egin ahal izango da, eta inprimagailuaren faktura sinplifikaturako ezartzen diren gutxieneko datu berberak jaso beharko ditu.

28. artikulua.— Pinturak, bereizgarriak eta itsasgarriak

1. Getxoko Udalak baimendutako bereizgarri, ikur eta itsasgarriak bakarrik jarri ahal izango dira.
2. Ibilgailuak segurtasun-helburuko bideozaintza-sistema bat badu, datu pertsonalak babesteari buruz indarrean dagoen araudian aurreikusitako informazio-betebeharra bete beharko du. Datuak Babesteko Bulegoaren jarraibideetan aurreikusitako zehaztapenei jarraituz, informazio-itsasgarri bat jarri beharko da, datu pertsonalak babesteari buruz indarrean dagoen araudian ezarritako ereduarekin. Informazio hori atzeko ateetako beiretan agertu beharko da, kanpotik eta ibilgailuaren barrutik ikusteko moduan ikus dadin.

29. artikulua.— Ibilgailuak desinfektatzea

- Ibilgailuek desinfekzio-baldintza egokietan egon beharko dute.

**30. artikulua. — Aurretiazko berrikuspena**

Udalaren baimena ez duen ibilgailurik ez da zerbitzuan jarriko. Horretarako, Eusko Jaurlaritzako Industria Sailak (IAT) eta Getxoko Udalak aztertu beharko dute, segurtasun-, kontserbazio- eta dokumentazio-baldintzetan.

31. artikulua. — Ohiko eta ezohiko berrikuspenak

Ordenantza honen xede diren ibilgailuei urteko ohiko azterketa egingo zaie, baita Getxoko Udalak deitzen dituen aparteko beste guztiak ere.

Egindako azterketak gainditzen ez dituzten ibilgailuek ezin izango dute zerbitzurik eman antzemandako akatsak konpondu arte, eta udal-ikuskaritzako zerbitzuek hala berretsi arte.

32. artikulua. — Publizitatea. Alderdi orokorrak

Trafikoari eta bide-segurtasunari buruz indarrean dagoen legedia eta publizitatea-ri buruzko araudi orokorra betez, autotaxiko ibilgailuen udal-lizentzien titularrek ibilgailuaren kanpoaldean eta barruan publizitate-iragarkiak kontratatu eta jarri ahal izango dituzte, hurrengo artikuluan jasotako zehaztapenen arabera, betiere ibilgailuaren estetika mantentzen bada eta Getxoko taxi gisa behar bezala identifikatzeko aukera ematen bada, ikuspena eragozten ez bada, inolako arriskurik sortzen ez bada eta sektorearen irudiaren aurka egiten ez bada.

Inola ere ezin izango da alkoholaren edariaren, tabakoaren, apustu-zerbitzuen edo adina dela-eta mugatuta dagoen beste edozein jardura edo zerbitzuren publizitatea egin. Era berean, ezingo da eduki politikoko publizitaterik egin, eta debekatuta egongo da publizitate sexista edo emakumeen irudiaren aurkakoa egitea eta bereziki pertsonen sexu-esplotazioa bultzatzen, sustatzen edo bultzatzen duena.

Taxi-lizentziaren titularra izango da lizentzia horri esleitutako ibilgailuan erakutsitako edukien arduraduna, eduki horiek ordenantza honetan eta aplikatu beharreko gainerako araudian ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

Publizitate-mezuak edo horien diseinu estetikoa ezin izango dira kontraesanean jarri Getxoko Udalak defendatutako balio eta politikekin, hala nola bakea, askatasuna, berdintasuna, tolerantzia eta sexuagatiko, arrazagatiko, erlijioagatiko, nazionalitateagatiko edo eskuragarritasun ekonomikoagatiko diskriminaziorik eza. Era berean, ezin izango dira bat etorri, denboran, udalak sustatutako kanpainekin, horien edukia, mezua edo diseinu estetikoa kontraesanean jar badaiteke edo hartzailak desorientatu badaitezke.

33. artikulua. — Barruko eta kanpoko publizitatea**1. Barne-publizitatea****a) Publizitate-euskarria.**

- Publizitate-informazioa modu interaktiboan erakutsi ahal izango da (digitala, ikus-entzunezko baliabideak, etab.).
- Informazioa eta ikus-entzunezko publizitatea pantaila bakar baten bidez erakutsiko dira, TFT motakoa edo antzekoa, kopilotuaren idazpeneko buru-euskarrian integratuta.
- Buru-euskarrien/pantaila-euskarrien eredua antzekoa izango da autotaxi-flota osorako, eta arauzko baldintzak beteko dira. Azken hori agiri bidez egiaztatuko da, dagokion moduan.
- Erabilitako TFT motako pantailari esker, erabiltzaileak itzali, gutxienez hiru hizkuntzaren artean aukeratu (gaztelania, euskara eta ingelesa) eta emisioaren bolumena erregulatuta ahal izango du (isiltasunaren eta aurrez ezarritako maximoaren artean).
- Eragiketa horiek gidariaren esku-hartzerik gabe egin ahal izango dira, baita segurtasun-manpara instalatuta izan gabe ere.



- Era berean, barruko publizitate-euskarri edo liburuxketarako kutxatxo bat jarri ahal izango da, taxi-flota osoan antzekoa izango dena.
- Nolanahi ere, barruko publizitate-euskarri dagokienez, bide-segurtasunaren, industriaren eta abarren arloan aplikatzekoak diren beste xedapen guztiak errespetatu beharko dira.

b) Ezaugarriak.

- Udalak denbora horren %10 gorde ahal izango du, doan, kanpaina instituzional, turistiko, kirol edo ludikoei buruzko informazioa txertatzeko.
- Udalak erreserbatzen ez duen gainerako denboraren banaketa lizentziaren titularraren esku geratuko da; hala ere, ongietorria eta agurra publizitate-blokearen hasieran eta amaieran egingo dira.
- Publizitate-kanpainaren edukia ezin izango da manipulatu.
- Une jakin batean merkataritza-kanpainarik kontratatu ez bada, erakunde-, turismo-, kirol- edo jolas-kanpainei buruzko informazioa txertatu beharko da etengabe, denbora-mugarik gabe.

2. *Kanpoko publizitatea*

a) Publizitate-euskarria.

- Kanpoko publizitaterako gunek bakarra atzeko ateena da.
- Txertatutako publizitateak ez du 0,35 metro eta 0,50 metro arteko laukizuzena edo 0,40 metroko diametroa duen zirkulua gaindituko.
- Aitzeko bi ateak publizitate berarekin okupatu beharko dira.
- Binilo erauzgarri edo iman bidez egin ahal izango da publizitatea.
- Auto-taxi ibilgailuek, irratia edo beste komunikabideren bat badute eta titularrak sektoreko elkarte profesionalen batekoak badira, elkarrearen telefono-zenbakia eta izena eraman ahal izango dute ibilgailuaren karrozeriaren atzeko aldean (ahal dela maletategiaren behealdean), elkarrearen izenarekin eta telefono-zenbakiarekin, eta gehienez 80 cm/12 cm-ko neurriak izango dituzte.

b) Materialak.

- Itsasgarria magnetikoaren gainean. Kanpoaldeetarako biniloa, koloretan inprimatua, orri magnetiko multipolar baten gainean muntatua, gutxienez 0,7 mm-ko lodierakoa eta 44 gr./zm²-ko indarra edo handiagoa duena, eta kanpoaldeetarako lamina gardenez babestua.
- Karrozeriaren gaineko itsasgarria. Kanpoalderako ebaketa-biniloa, koloretan inprimatua.

c) Ezaugarriak.

- Indarrean dagoen urtean edo kanpainaren aurreko urtean kanpoko publizitatea eramateko baimena duten edo izan duten ibilgailuetan publizitate instituzionala sartzeko ahalmena izango du Udalak, nahai eta gehienez ere lau astez, betiere titularrak une horretan publizitaterik jarrita ez badu.
- Elkarreak arduratuko dira kanpaina horiek bazkideen artean banatzeaz eta jartzeaz.

34. artikulua. — Aldaketak

Ibilgailuan aldaketak egiteko, aurreko artikuluetan zerrendatutako ezaugarrietako edozeinetan eragina badute, industria eta trafikoaren arloan eskumena duten organoen baimenez gain, Getxoko Udalaren baimena beharko da.

35. artikulua. — Legezko betekizunak

